

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA, 2023KO
MARTXOAREN 3A
BIDASOA.HITZA.EUS
OARSOALDEA.HITZA.EUS
657. ZENBAKIA

ADAR ASKOKO BORROKA

Borroka feminista ez da bat eta bakarra.
Ardatz askokoa eta askotarikoa da.
Martxoaren 8an kalera aterako dira berriz ere
beti present izan behar duten aldarriak // 3-25

Etxeko langileentzako
baldintza duinak eskatu ditu
SOS Arrazakeriak // 4-7

Esther Aristieta Encinas
irundarrak 'Una cuestión
indecente' liburura eraman du
emakumeen zapalkuntza // 10-13

Abortua errazteko Oretetako
sare klandestinoak, zineman
ere erreferente // 16-19

MARTXOAK 8, EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Nazioartean, Lezon, etxean... eskubide berdinen alde!



Lezoko
Unibertsitateko
Udala

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA • 2023ko martxoaren 3a

Oiertzualdeko Hedabideak S.L.ko kideak:

Oiertzun Irratia
Orratz! Kultur Elkarte
Antxeta Irratia
Bertako Hedabideak
Pausu media
Lau Haizetara

eta Oarsoaldeko beste 53 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak.
Udalak: Errenteria, Lezo, Oiertzun, Pasaia.

**Argitaratzailea:**

Oiertzualdeko Hedabideak EM

Lege Gordailua:

ISSN-0793-03.

Zuzendaria:

Urko Etxebeste Petirena.

Produktzio arduraduna:

Allende Arnaiz Garmendia.

Egoitza nagusia:Irun kalea 8 behea,
20100 Errenteria-Orereta.**Telefona:**

943 34 03 30

E-posta:

oarsobidasoa@hitza.eus

Webguneak:

bidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
oarsobidasoa.hitza.eus

Publizitatea:**Telefona:**

647 35 42 54

Posta elektronikoa:

ecarrizo@hitza.eus

HITZA-ko bezeroen arreta zerbitzua
(zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko):

943 30 43 46**harpidetza@hitza.eus**

oarsobidasoa.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus
bidasoa.hitza.eus

**Aitor Salaberria Oiertzabal**

LEZO

Ilusioa

Adituek diotenez emakumezkoek gehiago eusten diote euskarari gizonzuek baino. Euskararen feminizazioa deitzen diote, eta, antza, gizarteko rol banaketa dago horren atzean, maiz izaten dutelako andrazkoek hizkuntza lanabes. Aitzakia ederra zen Martxoaren 8a mugimendu feministaren eta euskalgintzaren arteko aliantza jorrazteko. Baina, behingoz zutabea aurretik prest nuenez, eta emakumez martxo ez beste hilabeteetan ere hitz egin daitekeenez, bestelako minak eta pozak ekarri dizkizuet.

Amorruak begiak blaituta gogoratzen dut lagun bizkaitar bat orain urte pare bat. Hilabete oso batez euskaraz aritzeko eremu ibiltari batez gozatu ondoren, indarberrituta, lagunartea eta betiko inguru erdalduna euskalduntzen saiatzen aritu zen zenbait hilabetez. Ez zekien nekez lortuko zuela halakorik, eta testuinguru erdaldunera itzultzeak erabat makurrarazi zuen. Gazte euskaltzalerik euskaltzaleena ere ahitu dezake egunerokotasuna euskaldun izateko oztopoz josita izateak. Gerora ohartu zen hobe zela euskarazko eremuetara jotzea, eta harreman berriak euskaraz eraikitzea, inguru erdalduna erabat euskalduntzeko erronkari aurre egitea baino.

Etsipenak jota antzematen ditut guraso euskaltzale ugari seme-alabak etenik gabe erdalduntzen ari direlako. Horixe bera topatu genuen Xoxolur mendi taldearen Baztango irteeran, haurren eta gaztetxoeh ohiturei erreparatzean. Nahiz eta txangoa euskaraz izateko berme guztiak jarri, atsendaldietan, pantailak ziren entretenimendu iturri, eta, zoritxarrez, gaztelaniaz.

Halako uholdearen aurrean, ezina zen nagusi. Gurasoetatik seme-alabetarako transmisioak geroz eta eragozpen handiagoak ditu, baina batzuetan ez gara ohar-tzen lagunartek eta ongi egituratutako aisialdiak euskalduntzeko duten botereaz. Gazte bizkaitarraren amorrua etorri zitzaidan gogora, testuinguru erdalduneko gaztea lagunarte euskaldunak euskaldundu zuelako, transmisioa horizontala zelako haren kasuan.

Kezkak barrenak nahastuta bildu ginela oiroitzen dut, 2016an. Zenbait gaztek Soziolinguistika Klusterraren orduko datuak aztertu genituen, eta geldialdia edo atzeraldia antzematen genuen. Bilakaerak susmoa berretsi du, euskararen erabilera %40 ingurutik %30era jaitsi baita azken hamarkadan Lezon, eta haurren kasuan erorketak marka guztiak hautsi ditu.

Ilusioz bizi dugu, hala ere, orainaldia. Zortzi urteren ondoren, otsailean hainbat herritar Plaza Hutsa ekimenean elkartu ginen, eta Lezo berriro euskaldun izateko bidea marrazteari ekin. Ez gara hutsetik hasiko, ordea. 2016tik hona Piztu Lezo euskaraz eroso eta gustura aritzeko testuinguru zainduak sortzen aritu da, zarata handirik atera gabe, baina arrakastaz. Zeorri aldizkariak gazte zein helduak euskaraz irakurtzen jarri ditu, tokian tokiko gaien protagonismoa emanda. Hezkuntza ez formalean, Txirbilla aisialdi taldeak haurren eta nerabeen euskalduntzeari heldu dio, herriko guraso taldeak elkarlanean aritzeko zirikatzen. Oztopoen aurrean, herrigintzatik ere asko egin daiteke, etorkizuna euskaraz izango delako. ✕

Nork zaintzen ditu zaintzaileak?

Iaz hasi ziren etxeko langileak langabezia ordainsarirako kotizatzen, baina eskubide asko bermatu gabe dituzte oraindik. SOS Arrazakeriak salatu du dagokiena baino 800 euro gutxiago kobratzen dutela hilean.

OLAIA GERENDIAIN ERRENTERIA-ORERETA

Hego Euskal Herrian legalki diharduten 34.000 etxeko langileak 2022ko urrian hasi ziren langabezia ordainsarirako kotizatzen, Espainiako Ministroen Kontseiluak —Europako Auzitegiko ebazpen batek behartuta— onartutako dekretuaren ondorioz. Ordura arte, %95an emakumeak diren langileek ez zuten eskubiderik lan-etenaldietan edota erretiratzean prestaziorik jasotzeko.

Etxeko langileen eskubideen alde

egindako borrokan urrats handia da iaz indarrean sarturikoa, baina hutsune asko dituela salatu dute ordutik mugimenduan dihardutenek. Besteak beste, kotizazioak lege berriaren inplementaziotik aurrera hasiko baitira zenbatzen, eta aurretik hamarkadak lanean egin izan dituzten emakumeek ez dute, erretiratzeke adina heltzean, ordainsaririk jasotzeko eskubiderik izango.

Errenteria-Oreretan duen bulegoan, besteak beste, lan aholkularitza zerbi-

tzua eskaintzen du Gipuzkoako SOS Arrazakeriak. Bertan etxeko langileak artatzen dituztenen artean daude Marling Castillo Calderon irundarra eta Gerar Carrere Zabala oreretarra. Bigarrenak *etxeko langile* terminoa definitzeko beharra ikusi du, iritzita jendartea zaintzaz mintzo denean «asko orokortu» ohi dela: «Kontratazio mota bat da, soilik norbanako batek egin diezaiokeen kontratua beste norbanako bati, lehenengoren etxean lan egin dezan. Hori da etxeko lana».

Enpresa edo instituzio batek etxe batean zerbitzuak eskaintzeko kontratatutako langileak ez lirateke sartuko, beraz, multzo horretan. Izan ere, langile horiek duten kontratua erregimen orokorrekoa baita. «Badute enpresa batzordea, lanordua zehazten dizkiete... lantalde bat dago hor», Castillok. «Nahiz eta hor ere badagoen etxeko lan ezkutukoa», oreretarrak, «alegia, enpresa batzuek langileak kontratatzen dituzte lanaldi murriztuekin eta gero etxeetara bidaltzen dituzte egoiliar bezala; familiari izugarrizko dirutza kobratzen diote, eta zati txiki bat heltzen zaio langileari». Azken hilabeteotan artatu duten emakume baten adibidea jarri dute: familiak enpresari 2.800 euro ordaintzen zizkion, eta langileak 900 euro jasotzen zituen.

Egoera lazarrienak etxeko langileen artean ematen direla esan dute, hasteko eta behin, ordutegiak ez direlako errespetatzen. 40 orduko lanaldiari beste 20 gehitzea baimentzen du legeak, betiere ordu horiek deskantsu moduan edota dirutan ordaintzen bazaizkio langileari





Marling Castillo Calderon eta Gerar Carrere Zabala, Erretereria-Oreretako SOS Arrazakeriaren bulegoan.
O. Gerendiain

gero; «etxeko langileen kasuan, hori ez da ematen gehienetan», deitoratu du irundarrak. «Ez da deskantsatzen ezta kobratzen ere. 40 orduko kontratu batekin, soldata minimoa kobratuta, langileek 6otik gora ordu egin ditzakete eta horiek ez dira inon aitortzen. Hori ere bada esplotazio modu bat».

Abusu hori are eta agerikoagoa bilaka-

tzen da langile egoiliarren kasuan, horiek adostuta baitute gaua igaro behar dutela, baina ordu horiek ez daude inola kuantifikatuta, ez dago horiek arautzeko lege bat dioena langile batek zenbat kobra dezakeen gau batengatik. Alegia, baldintza berdinak dituzten bi kontratu alderatuta, bietako batek etxean gaua emateko klausula hautatuta edukiko

CIFP DON BOSCO LHII



DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA

20100 Erretereria

Tel.: 943 510 450

donbosco@fpdonbosco.com

www.fpdonbosco.eus

PAPER KALEA, 1

20400 Tolosa

Tel.: 943 672 900




**Lanbide heziketa
baino askoz gehiago**




• ETXeko LANGILEAK GIPUZKOAN

2022AN ARTATUTAKO PERTSONEN ARABERA, OROTARA 206 LANGILE.

• Jatorria



• Ikasketak



• Kontratu mota



• Egoera administratiboa



ITURRIA: GIPUZKOAKO SOS ARRAZAKERIA

balu, klausula hori ez duen besteren soldataren zenbatekoa berdina litzateke.

Hiru erpinak

Eskubide urratze horiek elkar-elikatu eta babesten den sare batek legitimatuta ematen dira. Kausa pisutsuenak hartu ditu ahotan Carrerek: etxeko lanen behar eta eskaera handia; administrazio arduradunen «utzikeria»; eta egoera zaurgarrian dauden emakume askoren —migratuak gehienak— beharra.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diru la-

guntzak eskaintzen ditu mendekotasuna duten pertsonen «laguntzaile pertsonalen» kontratazio gastuetarako. Bi motatakoak izan daitezke prestazioak: kanpoko langile bat kontratatuzko, edota zaintza behar duen pertsonaren senide bat zaintzaile gisa aitortzeko. Lehen motako laguntzak jasotzeko 7.000tik gora eskaera izan ziren iaz, kideek adierazi dutenez. «Pentsa», Carrerek, «zenbateko beharra dagoen; eta uste dut horietako 1.500 mendekotasun gradu handiena duten erabiltzaileak zaintzeko zirela».

Mendekotasunaren arabera sailkatutako hiru gradu daude.

«Familia eskatzaile gehienak erdi-mailako klasekoak dira», jarraitu du, «bitarteko ekonomiko askorik ez dutenak, eta horien beharrak asetzeko ere ez dira aski finantziazioak». Lehen graduko menpekotasuna dutenentzat 300 euroko gehienezko laguntzak daude hitzartuta; bigarren gradukoentzat, 464 eurora

Orain arte lanean emandako urteak ez dituzte kontatuko erretirorako ordainsarrietan

artekoak, eta hirugarren graduko menpekotasuna dutenen zaintzarako maximoa 834 eurokoa da. Zifra horiek, betiere, gehienez jaso daitezkeenak dira, baina aldundiak zenbatekoa murriztea erabaki dezake kasu bakoitzean, zerbitzuaren «kostu errearen» arabera.

Astean 60 lanordu egiten dituen egoiliar baten gutxienerako soldatak, gauak kontutan hartu gabe,—alegia, astean sei egunez egunean 10 ordu lan eginda, adibidez—, azken igoerarekin 2.000 euro ingurukoa beharko luke, legez, hilabete-an. Horri Gizarte Segurantzza gastuak gehitu beharko litzaizkioke, 460 euro inguru. Bestela esanda, menpekotasun guztizkoa duen senide bat zaintzeko langile bat astean 60 ordura kontratatu nahiko lukeen familia batek 2.400dik gora euro inguru beharko lituzke hilero; kasurik onenean, aldundiaren 800eko laguntza jaso eta gainontzeko 1.600ak asumitu beharko lituzke familiak.

EGUZKITZA HLHI
PROIEKTUETAN DINARRITUTAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA BERRIZTATZAILEA ETA INTEGRATZAILEA

baikara
KALITATEA HEZKUNTZAN

Berdintasunean hezten

Victoriano Juaristi, 1. IRUN 20304. Tel: 943 89 91 61.
E-posta: 013372aa@hezkuntza.net • www.eguzkitza.hezkuntza.net

«Horra hor erakundeen utzikeria», Carrerek. Egoerari entzungor egiten diotela salatu du Castillok: «Gizarte Segurantzian kontratu guztiak jasotzen dituzte, eta aldundian ere badakite zenbat eskatzaile dauden gradu bakoitzekoak; guztizko mendekotasuna duen pertsona baten zaintzailea 40 ordura kontratatuko dutela ikustean, hori deigarri gertatu behar zaizu. Baina inork ez du ezer esaten, begiak estaltzen dituzte».

Horrela jaiotzen dira kontratu prekarioak, eta euren burua horiek onartzera behartuta ikusten dutenak dira kolektibo zaurgarrienak. «Eskaintza handia da, batez ere emakume migratuen, dependentzia eta behar handia dutelako; badi-ra dokumentaziorik ez dutenak, edota dokumentazioa izan eta hori mantendu ahal izateko kontratu bat behar dutenak, eta aldi berean sorterrira dirua bidali behar dutenak, hemen inolako sarerik edo sostengurik ez dutenak...».

Atzerritarren Legea «esplotazio hori sustatzen duen beste eragile bat» dela esan du Carrerek, emakume askorentzat erregularizatzeko bide bat baita etxeko lana. Azalpen gehiago eman ditu Castillok: «Paperak familia batek egindako kontratuaren bitartez lortu behar badi-tuzu, horiek jarritako baldintzak onartu behar dituzu ezinbestean. Eta ezin duzu utzi, txartela lortuta lana uzten baduzu hori kentzen baitizute».

Esplotazioa ahalbidetzen duten faktoreek triangulu bat osatzen dute horrela: erpin batean dago gizartearen zaintza beharra, bestean lan hori egiten duten emakumeen behar handia, eta azken er-

pinean gutxiegioko diru-inbertsio publikoa. «Administrazioek dirutza aurrez-ten dute, eta baldintza hauetan funtzio-na dezakete emakume askoren esplotazioaren kontura, bestela ezinezkoa litzateke. Hirugarren gradua duenak 800 euro jasoko ditu, suposatzen da 24 orduz egon behar duela zainduta, eta aldundian aurkezten diren kontratuak 40 ordukoak dira; baina inork ez dio ezer».

Proposamenak

Hiru erpineko kiribil horretatik irteteko SOS Arrazakeriako kideek eskatu duten lehen gauza legea bete dadin izan da. Hori lortu ahal izateko kontrol mekanismoak abiarazi behar direla esan du Castillok: «Bitarteko publikoak jarri behar dira bermatzeko langile horien eskubideak betetzen ari direla».

Diru laguntzak ez dira aski etxeko langileei soldata duin eta justuak ordaintzeko

Eskubideen berme horretara heldu ahal izateko, ordea, zimenduetara jo behar da lehenik. Kontratuak birformulatu beharko lirakeke zehazten hasiz, adibidez, zer-nolako zerbitzuak eskaini ahal-ko dituen langileak, zein ordutegi izango duen lanaldiak, gauak nola kontabilizatu eta konpentsatuko diren...

Kontratatzaileen sentsibilizazioa indartzea ere jo dute gaketzat. «Familiek jakin behar dute zein baldintzapean kontratatu behar duten, nola berma ditzaizketen emakume horien eskubideak

dagokien neurrian». Neskame kontzeptua oraindik ere oso iltzatuta dagoela salatu dute. «Oraindik oso pentsamolde klasista dago, eta harreman oso paternalistak ematen dira; badirudi euren salbatzaileak garela», oreretarrak. Mentalitate horiek gizarte maila guztietan antzematen dituzte, «salaketak tramitatu ditugu nola eliteko familien hala ezker iraultzailekoenen kontra». Castilloren ustez, ideia hori sortzen da uste delako emakume migranteak «makilez egindako txabola batetik» datozela, eta ez dakitela irakurtzen ere.

Erakunde publikoak dira, dena dela, aurretik lan handiena dutenak. Kontratatzaileei egindako galderak formulatzeko modu berriak asmatu behar dira: «Zein da behar duzun zerbitzua? Zenbat orduz? Eta beraz, zenbat langile behar dira behar horiek ase ahal izateko? Hiru kontratu behar badira, hiru egingo ditugu, baina era duinean eta errealista den finantziario batekin». Bestalde, esplotazio hori atzean uzteko benetako trantsizioa egingo bada, aldarrikatu dute ezin direla atzean utzi egun zaintza sistema hori sostengatzen ari diren emakumeak, «haiekin egin behar du».

Azken hausnarketa bat egin dute SOS Arrazakeriatik: «Zer gertatuko da bizi osoa kotizatu gabe lanean eman duten langileekin? Bi kasu ditugu orain: 61 urteko emakume bat alzheimerarekin eta beste bat minbiziarekin, ez batak ez besteak jubilatze eskubiderik ez dutenak, eta hori nazionalitatea dutela; zer egingo dugu haiekin? Eta egoera berean dauden beste milaka emakumeekin?». ✕



Taxi Jaizkibel
Donibane. Antxo. San Pedro.
Trintxerpe. Lezo.
943.39.14.14



OLHUI | IMFPB
Pasaja
Oinarriko Lanbide Heziketako
Udal Institutua

Sukaldaritza eta Jatetxe-arloa
Etxebizitzan Mantentze-Lanak
(Iturgintza - Beroa)

Gure gazteak berdintasunean hezten

INFORMAZIOA
Bidasoa kalea, 1-3, Trintxerpe, Pasaja. - T. 943 404894
www.tpb-oh.pasaja.org - E-mail: oh-tpb@pasaja.net

PASAJAKO UDARA

EMAKUME, 80ko amamen katean

Martxoko hitzorduak hala behar zuen. Zuei zer kontatu pentsatzen ari nintzela, horra non jasoen HITZA-ko lagunen deia: «Iritzia argitaratzea tokatzen zaizun astekariko gai nagusienak Martxoaren 8arekin lotura izango dutenez, zure testua ere horren bueltakoa izatea proposatzen dizugu».

Helduko diot eskaerari. Egia esan, HITZA-koek nahikoa konfiantza jartzen dute kolaboratzaileengan. Hainbeste urtetako elkarlanean lehen aldia da zer idatzi eskatzen didatena, beste guztietan libre utzi gaituzte zer idatziko. Eskertzekoa da konfiantza, geroz eta estuagoa eta itogarriagoa bihurtzen ari den kontrolpeko munduan.

Eskaria jaso nuenetik, nire baitan EMAKUMEk zer sortzen didan bila ari naiz. Zer iruditegi egikaritzen joan ote naiz jaiotzenetik dimentsio horren baitan?

Emakumea ote naiz hala sortu nindute-lako; nire barruan hala nintzela sentitu nuelako inoiz; kulturalki hala eraiki dudalako nire burua; edota denetik zerbait jasota eraiki/bizi dut nire emakumetasuna? Ez naiz erantzun garbi batera iritsi. Banaiz eta puntu. Honarte iritsi naiz.

Jorge Oteiza arte-gizon eta pentsalari handiak zioenez, 80 amamek elkartzen gaituzte Neolitorekin. Horixe litzateke gu eta Neolitoko gure arbasoen arteko distantzia, kobazuloak utzi eta erri eta itsas-ondoko lur emankorra goetara abiatu ginen garaia, hain zuzen. Emakume eta amama kate luze horren katebegia sentitu naiz, indarrez sentitu dut azalarazten nire barru sakonenetik.

Emakume jaiotzen mundura amak. 80 amamen katera lotzen nau berak. Sentitzen dut eskuineko eskua bere ezker eskuineko eskura sendo lotuta, eta hark amaren helduta, eta beste harena amazuen beste bati helduta eta hala lehen amama hura arte. Gertuen geratzen zaizkidan amona batzuen aurpegiak ezagutzen ditut, haien aurrekoenen izenak ere bai,

Arantxa Urbe Irazusta

ORERETA



baina azkar galtzen dira denboren tunelean. Hala ere, amaren eskuaren barrera iristen zaizkit haien guztien jakintza, babesa eta minak ere bai.

Amonak esan zigun lehengusinari eta bioi, neskak ginelak, sekula ez ezkontzeko. Bere garaian etxetik ateratzeko modu bakarra ezkontzea edota moja joatea omen zen, baina gure garaian lan egin eta inoren beharrik gabe bizitzeko aukera izango omen genuen. Zertarako ezkondu, orduan. Beti pentsatu dut gure amona bere garaitik kanpoko emakumea izan zela. Esango nuke berak, gure modura, feminismoa zer zen usaindu ere ez zuela egin. Eta, hara, bera izaki ikaspen feminista sakonenetakoa eskaini didana, oraindik ahaztu ez dudana.

Gogoeta denbora honetan ohartu naiz txikitatik neskak eta mutilak izan ditudala inguruan: ikastolan, etxean, lagunartean, udalekuetan... ez zait etorri egoera bakar bat ere propio *neskak* bezala sailkatuak geundenik. Eta hori aldeko izan dudalakoan nago. Esango nuke, gaztarora arte ez genuela generoaren desberdintasun kontzientzia hori izan.

Gure gaztaroko Oreretan gauzak ez ziren samurrak neskenentzat. Gaur bai eta bihar ere bai erasoak eta bortxaketak gertatzen ziren auzoetan. Gure aitek etxeko sukaldeetan guk entzun ez genezan ahopeka zaintza patruilak antolatzen zituzten nes-

ken etxeratzea babesteko. Inork ez zigun zuzenean hitz egin neska izateagatik gurekin generoaren kalteberatasunaz, ez zen kanpainarik behar izan, baina ikasi genuen etxerakoan pausoa bizkortzen.

Ingeniaritza unibertsitateira iritsi nintzen. Han neskek komunera joateko atezainari giltza eskatu behar genion. Asaldatuta protesta egin genuen, lehen aldiz mutilen aurrean diskriminatuta sentituta. Gure segurtasunerako neurria zela entzun behar izan genuen, «mutilez betetako inguru hartatik babesteko».

Ondoren, langileen arteko soldata arrakala generoaren arabera antolatuta ez da goen sektore batean lan egitea egokitu zait. Beraz, ezin dut esan emakume izateak asko baldintzatu nauenik nire lan ibilbidea.

Bihotzeko leku kutunean ditut erasoak jasan dituzten lagunak. Urte luzez otsoarekin bizitzen aritu ondoren, salatzearekin bildu arren, otsoak edozein bazterretik zelatzen jarraitzen ditu, bere aukeraren zain. Eta ezin dut eraman; nola?

Ama, estu hartu nahi dizut eskua, 80 amamako katearen parte izan nahi dut. Emakumeok sekula galdu behar ez genuen dagokigun lekua berreskuratzen dugunean, denentzako ederragoa eta abegikorrago izango den mundua lortzetik gertuago gongo baikara: pertsona guztiak eskubide guztien jabe izango gara, orduan. ✕



me

“Emakumeek gune publikoak borrokatu behar dituzte”

ESTHER ARISTIETA ENCINAS IDAZLEA

‘Una cuestion indecente’ liburua argitaratu du Aristietak. Lau nerabeen begietatik, emakumeek espazio publikoan borrokatu beharreko aurkakotasunaren jabetzea jorratu du.

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN IRUN

Noiz hasi zinen idazten? Beti izan duzu afizio edo ofizio hori?

Aurretik inoiz ez nuen idatzi. Denbora batez ezin izan nion tarterik eskaini normalean eskaintzen nionari, kirola egiteari edo... Izan ere, amaren zaintzarekiko menpekota izan naiz, eta berarekin egon behar nuen. Prozesu guztia hasi zen denbora horretan irakurtzen ibili nintzelako. Behin irakurketa egin da, irakurritakoa kontatu nahi nuen, hori guztia ordenatu nahi nuela konturatu nintzen.

Liburua irakurketa guztietatik lehenbizi arreta eman zidanarekin hasten da. Informazio hori oso sakabanatuta neukan, bideoetan, artikuluetan... ez nuen gai hori jorratzen zuen kontakizun bat aurkitu. Idazten joan nintzen heinean estruktura sortzen joan nintzen, ez nuen aurretik pentsatu zein izango zen egitura eta zer izango zen idatzi nahi nuena, baizik eta aurkitu nuena antolatu nahian

sortu nuen orain esku artean daukadan liburua.

Zer izan zen topatu zenuena?

Istorio bat topatu nuen, zerikusia zeukana Olinpiar Jokoetan emakumeen parte hartzearen historiarekin. Emakumeak oposizio fuerte bat topatu zuen Olinpiar Jokoetan parte hartu ahal izateko hamarkada luzetan zehar. Oposizio hori Nazioarteko Olinpiar Batzordeko gizonak eta Olinpiar Joko modernoak sortu zituztenek egin zuten. Aurrean, Emakumeen Kirol Elkarteetako kideek egindako borrokarekin egin zuten topo, Alice Milliat buru zutela. Historiaren pasarte horrek atentzioa eman zidan, eta datuekin istorio hori ordenatzen hasi nintzen.

«Mendeetan zehar, gizarte-sistema hierarkizatu bat ezarri eta hobetu da, emakumeak bereizi eta zapaltzen dituen», diozu. Nola ondorioztatu zenuen hori?

Emakumeek izan zuten aurkakotasun hori ikusten hasi nintzenean, asko gogoratu zidan hemen alardeekin gerta-

tu zena. Paralelismo handia zegoen. Gauza puntual asko zeuden, baina hemen gertatutakoa gogorarazten zidaten. Orduan, emakumeek espazioa bereganatzearena beste toki batzuetan nola egin zen bilatzen hasi nintzen, eta beti istorio bera errepikatu zela ikusi nuen: emakumeak, edozein espazio publikotan sartzean, aurkakotasun irmoa izan du beti: gezurretan, emakumeen gaitasun faltari buruzko teoria faltsuetan, irainetan eta deskalifikazioetan oinarritu zen oposizio lotsagabe batekin egin zuten topo, etxeko espazio pribatuan mantentzeko eta espazio publiko horietara sartzen ez uzteko helburuarekin egindakoa.

Kirola, hezkuntza, lana, jaiak... Gune horietako bakoitzean emakumeak gune publikoak borrokatu ditu, eta sortzen ari ziren teoria faltsu horiei guztiei aurre egin behar izan die, irainari eta deskalifikazioari aurre egin behar izan die arlo publikora sartzean. Borroka hori oso antzekoa izan da kasu askotan.

A.Aranburu



Liburua planteamendu batera iristen da, ezta?

Bai. Liburuaren egitura gertakizun hauen berri izatea da, hainbat ikaslek eskolarako egin behar dituzten lan baten bitartez. Soinetako ikasgaien eskatuko diete lan hori egitea, eta protagonistetako batek aurkituko du Olinpiar Jokoen historia. Hortik aurrera ohartuko dira beste espazio publikoetan ere gauza ber-

bera gertatu dela. Hasiko dira lehen aldiz entzuten *patriarkatua*, *feminismoa*, edo *mikro marxismoa* hitzak, eta horien esanahia zein den ere deskubrituko dute. Hasiko dira jakiten oposizioaren teoria zer den, eta emantzipazioa lortzeko boroa zein izan zen, maila oso xumean, gero hariari tiraka hasteko.

Ikuspegia aurre-nerabegaroko inozentzian jarri behar da. Pertsonaia protago-

nisten adina irekia utzi nahi izan dut, izan daitezkeelako DBH bukatzen ari diren neska batzuk, edota 30 urteko norbait, alardean parte hartzea erabaki duena. Hortik doa ideia. Liburuan hitz egiten den guztiaren gaineko ezagutza, akaso, ez duzu izango duzun adinaren arabera. Nik kirolaren esparrukoa ez nuen ezagutzen, ez da liburuetan beti ageri den zerbait. Bestetik, hizkuntza inklusiboan hitz egi-

TELLERI ALDE ikastetxea
Bittor Idiazabal 1, Errenteria 943.51.12.33

Desberdintasunetik berdintasuna eraikiz

ten da beti. Badirudi emakumeari dena dagokiola, baina gero ez da egia. Alegia, sufragio unibertsalaz hitz egiten zen, eta zuk diozu: «Baina nolatan unibertsala? Emakumeek ezin zuten bozkatu eta!». Baina hala ere, unibertsala deitzen zitzaion. Gerora zuzenketak egin zituzten eta egun *sufragio unibertsal maskulinoa* deitzen zaio. Emakumeak askoz geroago batu ziren sufragio horretara.

Jorratu duzun gai horri heltzeko, liburu honetan nerabe batek hori nola asimilatzen duen aztertu nahi izan duzu.

Nola asimilatzen duten baino, nik uste dut gertatu den lotsagabekeria hori, nola aurkitu duten ikusi nahi izan dudala. Emakumeak eremu publikoan sartzeko izan duen aurkakotasuna emakumearen gaitasunei buruzko gezurretan oinarritu da. Orduan, liburutxo honetan lau neraberengandik begiradaren eta ahotsaren bidez aurkitzen da hori. Institutuan lan batzuk egiterakoan deskubritzen dute, hain zuzen. Lan horiek egiten hasiko dira, eta emakumeen historia nolakoa izan den, eta arlo publikoan nola txertatu diren aztertzeari ekingo diote.

Zergatik erabaki duzu nerabeen ahotsa erabiltzea?

Ez da aurretik hartutako erabakia izan. Idazten ari nintzen bitartean otu zitzaidan zerbait izan da. Egia da liburua gazteek irakurtzea gustatuko litzaidakeela. Izan ere, inkontzienteki edo kontzienteki bada ere, gazteei zuzendutako liburua dela uste dut. Gazte garai horretan daudenentzat, eta konturatzen ari direnentzat nor diren, eta bizitza honetan zein den haien lekua jakiten ari direnentzat.



A.Aranburu

Tamalez ezin izan dut euskaraz publikatu, hori baita nire nahia. Baina itzulpena egiteko baliabideen bila hasi nahi dut.

Kostatu al zaizu nerabe baten azalean sartzea?

Hori izan da gutxien kostatu zaidana. Hortik idazten nuen nik errazenen, eta istorioa kontatzeko oso lagungarria izan zait. Orain adi-adi nago jendearen iritziei, jakiteko esaten saiatu naizena ea nola itzultzen didaten, orain arte jaso ditudan iritziak ingurukoak izan baitira, irakaskuntzaren alorreko jendearenak. Lanerako prestakuntza eta prestakuntza-teknika trebatzaile izan naiz, proiektuak egiten eta gazteekin ikastaroak kudeatzen. Pedagogian beti aritu naiz, hortaz, liburuak badauka nik pedagogiaz eta material didaktikoaz ezagutzen dudanetik.

Sistematik blokeoak ezartzea erraz izan duela ere adierazi duzu.

Prozesu honetan kontu askorekin egin dut topo. Esaterako, nire ama zendu berri da eta 1958. urtean notario batengana joan zeneko bere paper bat topatu dut. Bertan honako hau jartzen zuen: «Doña hura [bere amaren izena], bere senarraren laguntzarekin...». Ezin zuen bakarrik joan! Bata bestearen atzetik horrelakoak aurkitzen joan naiz.

Publikoa interpelatu nahi duzu. Nor zehazki?

Edonor. Denak konturatzen gara bizitzan zehar historian gertatutakoez eta konturatzen gara zein desleial izan den historia emakumearekin. Emakumeak ezin zuen goi mailako ikasketarik egin, adibidez. Ildo horretan, XIX. mendean agindu kontraesankor asko eman ziren emakumeek goi mailako ikasketekin jarrai ez zezaten. Ez da orain asmatzen ari diren zerbait, gertaera historikoak begiratzen badituzu oharretan zara beti izan dela horrela. Denok dakigu zer gertatu zen. Gero, bakoitzak jabetu denarekin ahal duena egiten du. Pertsona guztiak interpelatzen dituen liburu bat da, eta neskak oharretan ari diren guztiarekin

8 Homofobiaren, klasearen, arrazaren eta generoaren esplotazioaren aurka borrokatzen!

abotsanitz

Gazta - Teka Larraitz

- 665 726 209
- gazteika_larraitz
- gazteikakolona@gmail.com
- Koldo Mitxelena plaza, 9 behea 20100 Errenteria Gipuzkoa

irakurleak esan behar luke, «a zer bidegabekeria, ezta?».

Beraz, hizkuntzari buruz ere aritu zara liburuan?

Pertsonaiek erreferentzia batzuk egiten dizkiote hizkuntzari. Pertsonaietako bat ohartuko da gizonen garaipenez asko hitz egiten dela kirol munduan, baina gizon esate horren barruan ez dago emakumea [gaztelaniazko *El Hombrez* ari da]. *Gizon* horrek ez du emakumea esan nahi, gizonari egiten dio erreferentzia soilik emakumeek ezin zutelako parte hartu Olinpiar Jokoetan. Gizonaren lorpenak ez dira humanitatearen lorpenak. Neurri batean, hizkuntzak zer esan nahi duen deskubrituko dute liburuko pertsonaiek.

M de Mujer argialetxearekin publikatu duzu liburua. Erabaki kontzientea izan da?

Hasiera batean, kirolaren atala bakarrik nuen idatzita. Nire lagunei kontatzeko asmoarekin idatzi nuen, gainera. Hori idazten bukatu nuenean iragarki bat

«[Protagonistak] hasiko dira lehen aldiz entzuten 'patriarkatua', 'feminismoa'...»

«Badirudi emakumeari dena dagokiola, baina gero ez da egia»

«Gizonaren lorpenak ez dira humanitatearen lorpenak»

atera zitzaidan sare sozial batean, eta bertan, M de Mujer argialetxeak obrak eskatzen zituen baloratu ahal izateko. Argialetxe tradizional bat zela jartzen zuen deskribapenean, hau da, ez zela

autoedizio bat, eta egileari ez zitzaiola dirurik kostatuko. Iruzkinak irakurrita argialetxe serio bat zela iruditu zitzaidan. Errazena bidaltzearen botoiari ematea izan zen, argitaratzeko inolako asmorik gabe.

Bi hilabetera erantzun zidaten, eta esan zidaten bidalitakoa laburra zela, baina 18.000 hitz gehituz gero, baloratuko zutela. Nik bi hilabete horietan idazten segitu nuen, eta ordurako banuen liburu luzeago bat. Bukatu nuenean berriro bidali nien nire lana, eta publikatuko zutela baieztatu zidaten. Orduan, lagun guztiei kontatu nien, eta haietako batek esan zidan: «Hori algoritmoa da! Badaki zer den behar duguna!».

Irakaskuntzan dabiltzan lagun batzuek irakurri dute jada, eta material pedagogiko ona dela uste dute. Institutuan edota eskolan lan egiteko material ona dela, alegia. Eztabaidarako hasiera puntu ona dela diote. Askok gustatuko litzaidake eskoletako apaletara iritsiko balitz. ✕





VIJAYANAGARA / GARAI PENAREN HIRIA

Hampi, KARNATAKA.
Adeitasuna, Miresmena
eta Errespetua.
NAMASTE

J.A. ARETA GOÑI (JUXE)
ERRETERIA-ORERETA



Egin behar zuten, eta egin zuten

Errenteriako Emakumeen Taldearen barruan, emakumeek abortatzeko aukera izan zezaten talde klandestinoak sortu zuten. Ipar Euskal Herrira laguntzen zieten. Gaiari lotutako filma egin dute.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA ERRETERIA-ORERETA

Oreretakoak gara». Behin ez. Bitan edo hirutan esan dute HITZA-rekin izan diren tartean. Asun Urbieta, Fani Herrador, Julia Irasuegi, Nati Rufo eta Arantxa Olañeta dira. Errenteriako Emakumeen Taldeko kide izan ziren, eta Amalatzeko kide dira gaur egun. Feminismo militantean oinarritu dute haien bizitza, sinistuta haien ekarpena eurentzat bakarrik ez zela, emakume guztien-

tzat baizik. Zeregin nagusi kalean ikusezin zen emakumeen eskubideen aldeko borroka ikusgarri egitea zuten, eta dute; eta horren ondorioz, ez zituzten eta iristeke diren eskubide horien jabe egitea. Baina garai batean, bazituzten nahita ikusezin ziren gaiak. Horien artean, emakumeek aborta zezaten laguntzarako sarea, «sare klandestinoak». Urbieta, Herrador, Irasuegi, Rufo eta Olañeta, eta beste emakume asko, horren zati izan ziren.

«Oreretakoak gara», errepikatu dute, esan nahian herria hainbat borrokaldiren eta eskubideen urraketen protesta eta aktibismo ekintzaren gune izan zela, baina garai batean, 1970ko hamarkadaren eta 1980koaren hasieran, euren zeregin nagusia izan zela borroka feministak existitzen zela azaleratzea, kaleratzea, herriaren zati zela hori ere barneraraztea. Oreretar izatearen DNAREN barruan, emakumeen eskubideen alde borrokatzea ere bazegoela, alegia. Harro diote oreretarrak direla, jakitun direlako haien hainbat borrokaldi beharbada isilaraziak izan zirela, ekinean jarraitu zutelako, eta egun erreferente direla hemen, han, eta harago.

Harago horretan, *Las buenas compañías* filma dago. Herriko mugetatik gandi iritsi zen abortatzeko sortu zen sarearen gaia, Memorandua jardunaldien barruan (Memorandua Errenteriako Memoria Feministaren taldeak antolatua), izen bereko dokumentala egin zutelako Bertha Gaztelumendik eta Nuria Casalek; egileak ikasketa garaian izanik, Jorge Gil izan zen lan horren egileen tutore, eta

Asun Urbieta, Julia Irasuegi,
Arantxa Olañeta, Nati Rufo eta
Fani Herrador, Txintzarri
elkartearen atarian.

Urko Etxebeste



EZBERDINAK
IZANIK,
PAREKIDE BIZI

Martxoak 8:
Emakumeen Nazioarteko Eguna

www.oreretalkastola.eus

orereta
IKASTOLA
ALBIZAN

kilometroak

haren bidez iritsi zen gaia Silvia Muntaktore eta orain lehenengoz zuzendaria-rengana, Gilek egindako gidoiaren bidez. Pelikula grabatu zuen 2022ko uda partean Errenteria-Oreretan eta beste hainbat tokitan, eta lehenengoz Malagako Zinema Jaialdiko sekzio ofizialean ikusi ahalko da, hilaren 10etik 19ra. Maiatzean iritsiko da zinema aretoetara. «Filma-ekin ez da ezer itxiko. Zerbaiten hasiera izango da. Lehen aldia izango da zine-man mugimendu feminista zer zen azaltzen duena. Horregatik diogu zerbaiten hasiera dela. Pentsa daitekeen istoriorik muturreko eta imajinatiboena da. Dena aldatu nahi genuen. Gauza ikusgarriak

Zerbaitetan lagun zezaketenak ziren bakarrik talde klandestinoko kide

egin behar genituen, beraz. Baina askotan ikusezinak ginen, gizartea bera eta orduko egitura politikoak ere matxistak zirelako. Orduan aldarrikapen guztiak zeuden lortzeke. Egun, eskakizun baten batzuetan aurreratu da, baina...», esan dute Txintxarri elkartearen bilduren emakumeek.

1978ko otsaila

Beasaingo emakume bat hil zen 1978ko otsailean, abortatzeko perrexila erabili zuelako. «Perrexila, arropa zintzilikatze-

ko pertxak, puntua egiteko orratzak, sabela beherantz mahai baten gainera salto egitea... Orduan abortatzeko hori egiten zuten emakumeek». Orduko hartan, bazen Errenteriako Emakumeen Taldeko kide bat 1970eko hamarkadan Espainiako Estatuan legez kanpokoak ziren antisorgailuen bila joaten zela Ipar Euskal Herrira. «Halako batean, antisorgailuak ematen zituen medikuak esan zion abortuak egiteko aukera ere ematen zutela. Esan, eta taldea antolatu genuen. Beasaingoa ezin zen berriz ere gertatu».

Talde klandestinoak izan zen. Izan ziren Errenteriako Emakumeen Taldeko partaideak ere ez zuten jakin izan taldea existitzen zenik, «kotxerik ez bazenuen, adibidez, ez zenuen zertan jakin behar taldearen berri. Laguntza eman zezaketenak bakarrik zeuden taldean, era bateko edo besteko laguntza eman zezaketenak». 20 bat urteko gazteak ziren taldekideak. Eta dirua behar zen abortatzeko. Abortatu nahi zuten batzuek lortzen zuten diru hori, baina bazeuden sosik ez izan, eta taldekideen ekimenez dirua lortu eta laguntza jasotzeko aukera zutenak, «abortu bakoitzaren kostua 30.000 bat pezetakoa zen [180 euro]. Orduan diru asko zen». Herri-rik Ipar Euskal Herrirako bidean eta bueltan laguntzen zituzten abortatu nahi zituzten emakumeak.

Ahoz aho. Horrela jakiten zuten abortatu nahi zutenek Errenteria-Oreretan

bazegoela talde bat laguntza emateko prest zegoena. «Santandertik ere iritsi ziren baten batzuk gure laguntza eske. Orduan, klandestinitatean aritzea ez zen gauza berria. Arlo askotako sare klandestino asko zeuden. Ez zitzaigun arrotz». Haurdu ziren emakume horien egoera «brutala» zela azaldu dute emakumeek: «Ez zen manifestazio batera joan, eta poliziaren egurra jasotzen zenuela. Ez. Bizitza kontua zen. Emakume horiek larri zeuden. Abortatzeko prest zeuden. Etxean abortatzen zuten emakumeak hiltzen ziren. Guk egiten genuen esfortzua, ematen zuen emaitzarekin alderatua, oso txikia zen. Baten eskubidea, emakume denen eskubidea zen. Kontzientzia hori genuen».

Emakumeek adierazi dute zenbati laguntza eman zieten ez daudela ziur, baina litekeena da 1.000 emakumeren bueltan izatea. Egindakoaz harro daude. «Egin behar zen. Bizitzak jokoan zeuden. Egin genuen». Baina nabarmendu dute Errenteriako Emakumeen Taldearen dinamika askoz gehiago zirela, askotarikoak zirela egiten zituztenak: «Gauzei izena jartzea zen gure zeregina. Jendeari esatea zer nolako zapalkuntza zuten emakumeek. Gertatzen zitzaizkigun gauza horiek jendartera zabaldu nahi genituen izen-abizenekin. Jendearentzat existitzen ez ziren gauzetaz hitz egiten genuen. Arlo pertsonalean gertatzen zena, arlo publikora eta politikora eramane behar zela izan zen gure lanaren oinarria».

Eguneroko borroka zuzena

1970eko hamarkadan eta 1980koan ikusezin sentitzen ziren borrokalari feministak. Garai politiko konbultsoak ziren, kalean zio politikoko hamaika borrokal-di eta aldarrikapen zeuden, dena borbor, frankismoaren errepresioa, trantsizioko nahasmena, polizia, hildakoak, gatazka kaleetan. «Orduan, feministen ahotsa ia ez den deus. Gogoan dugu Martxoaren 8 batean emakume langileekin harremanik ez zuen greba orokordealdi bat ere jarri zutela...», diote, gaur egun erdi-txantxetan. Baina aderez egiten zuten aurrera: «Akzio zuzena zen gure zereginetako».





Indar parapolizialen bortxaketen kontrako manifestazioa, Erreenterian. HITZA

Kontatu dute, emakumeen kontrako erasoren bat izaten zenean, eta eraso-tzailea nor zen jakiten zutenean, hura jazartzera joaten zirela. Gainera, indar parapolizialek inguruan bortxatu zituzten emakumeen auziarekin, patruilak antolatuta zituztela, kalekoak. «Kotxean ibiltzen ginen zaintza lanak egiten, bortxatzaileen bila». Udaletxean lan egin zuen gizon batek haren bikotekidea eraso zuenean, haren bila ere joan ziren, «izutu genuen. Izua beste aldera pasa genuen».

Ekintza zuzenen gaian, gogoan dute Donostiako San Martin kalean egindakoa, hango epaitegiaren parean. Hiriburu errepide nagusi hori moztu egin zuten, kateatuta. *Basauriko 11k* izeneko gaiaren gaineko protesta zen; abortatze-agatik zigortu zituzten 11 emakume izan ziren Basaurikoak, eta orduan egindako protesten harira, Espainiako Gobernu

Abortuaren Legea lantzerantz behartu zuten. «Bada hor egon ginen errepidea moztuta, polizia noiz etorriko zain. Ez zetozen. Kateatu ginen, eta ez zetozen. Azkenean etorri, eta gutako bi sartu zituzten furgioan. Orduan furgioira beste asko sartu ginen gu ere atxilotzeko. Polizia etxean oihuka aritu ginen, baina haien kontra sekulakoak esanda ere ez ziguten kasu handiegirik ere egin. Ekintza ikusgarria egin nahi genuen prentsa ere etor zedin ekintza, eta horren helburuak jasotzera. Baina bai poliziek zein prentsak ez ziguten kasu handiegirik egin. Ia ikusezinak ginen». Herrian ere gai horrekin udaletxean itxialdi jendetsua egin zuten.

«1979-1980 urteen artean, indar parapolizialek Euskal Herrian emakumeak bortxatu eta hil zituztenean, orduan bai izan genuela jendea ondoan. Antza, horiek poliziaren ingurukoek egin izana

HEMEZORTZI GIDOI ZIRRIBORROKO FILMA

Las buenas compañías filmaren pres-taketa lanak zehazteko, eta Erreenterriako Emakume Taldearen berri zuzenean izateko, 2020ko uztailean izan zen Silvia Munt zuzendaria Erreenterria-Oreteran. Pandemiak utzitako abagune batean izan zen herrian, orduan zail zelako pertsonak alde bategatik bestera joatea. Amalatzeko kideek azaldu dute haiek kontatutakoekin zeharo harritu zela Munt, eta esandako hainbat ezingo zirela pelikulan sartu, ez zirelako sinetsgarri ekintza horien nolokotasunagatik. «Egiten genituenak kontatu genizkionean, ea poliziaren beldurrik genuen galdetu zigun. Guk ezetz esan genion. Erreenterriakoak gara!». Hala, gidoia guztiz osatzeko hemezortzi zirriborro egin zirela azaldu dute emakumeek, istorioak kontatu ahala, horiek sartzeko aldatzen zutelako.

herritarrak gure borrokekin bat egitera eraman zuten. Horrelakoak ziren gauzak».

Asteazkenean da Martxoaren 8a. Gari batekoek eta asteazkenekoak ez dute inolako antzik izango. Hori, besteak beste, Erreenterriako Emakumeen Taldeko edo Amalatzeko kideengatik da. Badakite oraindik lan asko dagoela egiteko. Baina ez dira ikusezinak. Gero eta gehiago dira. X



«Espazio seguru batean sentitzen dira, eta hori zaindu behar dugu»

**ANE GARCIA
ETA ANE LEKUONA**
IRAKURLE TALDE FEMINISTA

Feminismoaz hitz egiteko elkargune seguru bat sortu dute bi hondarribiarrek. Hilean behin Zuloaga Etxean elkartzen dira, haiek proposaturiko testuen gainean hausnartzeko. Izena eman daiteke oraindik ere.



A. Mendizabal

ANE MENDIZBAL SARRIEGI
HONDARRIBIA

Ane Garcia itzultzaileak eta Ane Lekuona Arte Historian doktoreak iazko azaroan abiarazi zuten Irakurle Talde Feminista. Feminismoaren gainean hitz egiteko, galderak egiteko, eta hausnartzeko sorturiko espazioa da. Hilean behin Zuloaga Etxea Udal Liburutegian biltzen dira, larunbatetan, 11:30ean.

Zer da irakurle talde feminista, eta zer-

tan ezberdintzen dira zuen saioak ohiko irakurle taldeenetak?

ANE LEKUONA: Gure intentzioa edo honetara motibatu gintuena izan zen faltan botatzen genuela horrelako elkargune bat, non feminismoaz hitz egin daitekeen. Feminismoa ulertuta mugimendu politiko bat bezala, baina baita pentsamenduari lotuta ere. Nolabait, gure bizitzako arlo guztiak ukitzen dituen zer edo zer, eta batez ere nahi genuena zen hori, elkartzeko puntu bat. Horretarako

irakurketa taldea deitu genion, pentsatuz testuak oinarri hartuta emango zizugula aukera nahi genuen horretaz hitz egiteko. Baina egia da, irakurketa talde modura ezagutarazi garen arren, gure asmoa ez dela bakarrik literatura irakurri eta horretaz hitz egitea, izan zitekeela, baina ez dela gure intentzioa. Nahi genuena zen feminismoaren ardatz ezberdinak hartu abiapuntu, saio bakoitzean batetaz jardun horren inguruko testuak oinarri hartuz, gero hitz egiteko.

ANE GARCIA: Puntualizatu behar dugu teoria feminista dela irakurtzen duguna. Ez dugula literatura irakurtzen, eleberririk edo. Gure taldearen asmoa da teoria feministetatik edatea, eta horien inguruan eztabaidatzea eta konpartitzea, gero gure bizitzan edo gure inguruetan aplikatu ahal izateko.

Esan duzue hutsune bat ikusi zenutela.

A.L.: Ane eta biok kuadrillakoak gara, eta gure inguruan ditugun sareak kontuan hartuta ikusten genuen askotan feminismoaz hitz egiten dugula, baina tabernan. Eta gainera, ikusten genuen herrian dugun testuingurua kontuan hartuta



ondo egongo litzatekeela horrelako el-kargune bat sortzea, hitzordu bat jartzea eta belaunaldi ezberdinetako pertsonak animatzea gauza hauetaz elkar pentsat-tera.

Nola izan da talde hau sortzeko proze-sua?

A.G.: Gure inguruko lagunekin askotan ateratzen dira feminismoari lotutako gaiak. Anek eta nik beti esaten genuen sortu behar genuela horrelako talde bat, irakurketa talde bat aitzaki hartuta, la-

«Taldeak aukera ematen du jendea aske eta goxo sentitzeko»

gun taldeetatik harago doazen pertso-nekin hitz egin ahal izateko. Inkesta bat egin genuen jendeak interesa izango zuen ala ez ikusteko, eta 40 bat pertso-nak erantzun zuten. Sorpresa izan zen. Ondoren izen ematea zabaldu genuen nor etorriko zen jakiteko, eta listo, mar-txan jarri ginen. Liburutegiarekin harre-manetan jarri, eta beraien bitartez oso ondo bideratu dugu agenda, lekua eta abar.

Ez dago emakumeei soilik zuzenduta.

A.L.: Egia da konturatu garela hurrengo urteari begira agian espezifikatu behar dela ez dela emakumeentzat. Galderak eta interesa duen ororentzat da, baina errealitatea da iritsi diren guztiak emakumeak garela, emakume bezala bizi ga-rela. Kontziente gara badagoela, nola-bait, errealitatearen aniztasuna islatzeko beharra, eta hurrengo urterako ea lor-

tzen dugun. Baina oso kontent gaude. Interesa duen orok du hemen lekua.

A.G.: Nahiz eta etorkizunean saiatuko garen saio heterogeneoagoak egiten, saiatuko gara zaintzen espazio seguru bat izan dadin. Saioak nola planteatu ikusten joango gara, partaide batzuek el-karbanatu baitute ez dagoela horrelako espaziorik herrian. Eta zentzu horretan espazio seguru batean sentitzen dira, eta hori zaindu behar dugu.

A.L.: Hamabost bat emakume biltzen gara, nahiz eta egunaren arabera alda-tzen den. Egia esan, zenbaki polita da, esan bezala aukera ematen duelako jen-dea aske eta goxo sentitzeko. Gure aspi-razioa ez da jende asko biltzea.

A.G.: Lehenengo egunean batek esan zi-dan: «Ia-ia ez naiz apuntatu, nik gauza hauei buruz ez dakidalako». Beraz, aka-demizismoan erortzeko arrisku hori landu behar genuela ikusi dugu. Azke-nean interesgarriena feminismoa herri-tarregana iristea da, eta ez diskurtso iritsezina izatea. Orduan hori praktikara eramaten saiatzen gara.

Nola da saioetako dinamika?

A.G.: Gaiak aukeratuta ditugu. Oinarrie-tatik hasi ginen: feminismoaren histo-ria, queer teoria... eta hilabete honetan klase borroka feminista landuko dugu. Hilabetero testu bat edo liburu bat bi-daltzen diegu taldekideei. Normalean zatiak hautatzen ditugu, norbaitek oso-rik irakurtzeko denborarik ez badu. On-doren, guk ildo batzuk prestatzen ditugu eztabaida sortzeko, baina azkenean hiz-ketaldi bat sortzen da batak eta besteak pentsatu dutenarekin.

A.L.: Batzuetan galdera batzuk presta-tzen ditugu, baina nahiko lausotuak ge-ratzen dira, eta testuinguruak ematen du aukera elkar ezagutza bat sortzeko.

Martxoaren 8ari begira, nola ikusten du-zue jendartea? Horren gaineko zer sen-timendu duzue?

A.L.: Oso kontziente gara feminismoaren kontua *popular* bezala iritsi dela plazara, eta horrek bere alde onak ditu, baina baita bere arriskuak ere. Aldi berean, gauza askorengatik borrokatzen jarraitu behar dugu, eta hori plazan egin beha-rrekoa da.

A.G.: Feminismoa popularizatzen ari den heinean, kontrako erreakzio nahiko bor-titza ari da gertatzen feminismoaren helburuak ulertzen ez dituen jendearen aldetik. Borroka feminista oso zabala dela ulertu behar dugu, eta guri dagoki-gun borrokarekin bakarrik ez gara itsutu behar. Esan nahi dut, feminismoak bo-rrokatzen du okerren daudenen alde, eta askotan okerren daudenak ez gara gu ti-tulu pertsonalean. Eta uste dut adi egon behar garela ez uzteko albo batean kolektibo zaurgarriagoak, pertsona tran-sak, pertsona migranteak, arrazializa-tuak eta abar.

Irakurketa talde feminista bada aletxo bat lanketa horretan, hala uste al du-zue?

A.G.: Bai. Azkenean, herri honetan egia da generoaren gaineko gatazka handia dagoela, eta horrek ere pixka bat xurgatu duela energia asko, pertsona feministen energia asko. Horregatik, guk nahi ge-nuena zen energia hori beste gai batzue-tara bideratu. ✕

• Haur eta helduentzat
Terapia Estrateziko Laburra
• Banakako, bikote eta
familla terapia

**JAKOBE
PSIKOTERAPIA**
620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez
Psikologoa GZ 1579
Xenpelar kalea 6, solairuartera,
5. bulegoa. Errenteria
www.jakobepsikoterapia.com

MAITEXA
TABAKOAK

OPARIAK

Bizente Elizegi, 3 . Errenteria . 943 51 21 10



Irungo Emakumeen Etxea, gertu

Azken urteetan hainbat saiakera egin ondoren, orain bai, Irunek Emakumeen Etxea izango du, Istillaga plazan kokatua egongo dena. Lokala Martxoaren 8an aurkeztuko dute, egitarau zabalarekin.

Emakumeen Etxeko zuzendaritza batzordeko lau kide. Ezkerretik eskuinera: Maribel Castello, Olga Rivas, Ros Campo eta Aintzane Ugalde. M. Del Val

MIKEL DEL VAL IRUN

Irungo Emakumeen Etxea errealtatea izango da aurki. Istillaga plazan kokatuko den espazioa bukatzeaz dago, azken lanekin dandea. Aurreikuspenen arabera, apirilaren 17an irekiko dela aurreratu dute Emakumeen Etxearen zuzendaritza batzordeko Aintzane Ugaldek, Olga Rivasek, Maribel Castellok eta Ros Campok; baina gune horretan lanean ari diren emakumeek jakinarazi dute data horri aurrea hartuko diotela, Martxoaren 8an bertan aurkeztuko baitute ofizialki Irungo Emakumeen Etxea.

Datorren asteazkenerako egitarau zabal antolatu dute, Martxoaren 8an presentzia izateko. 13:30ean egingo dute gunearen aurkezpena eta prozesua egi bihurtu bitarteko irudiak proiektatuko dituzte. Aurkezpenaren ondoren, *Clownclusiones* izeneko ikuskizun bat egongo dela jakinarazi dute. 14:30ean bazkaria egingo dute. Arratsaldean, manifestaziora batuko dira, eta eguna bukatzeko, 20:00etan, Pencoletas Sisters taldeak show feminista bat egingo du.

Parte hartze prozesua

Irungo Emakumeen Etxea errealtate bat bada ere, urte luzeko prozesu baten emaitza da, proiektua aurretik dator. Maribel Castellok oroitu du 1980ko hamarkadan Irunek «mugimendu feminista antolatua» zuela, baina alardearen gaiarekin «arazo handiak» izan zituztela. Hori dela eta, mugimendu hura «degin» egin zela esan du.

Urte «latz» horien ondoren, funtsezkotzat jo zuten emakumeen jarduna berreskuratzea. Emakumeen Etxearen aldarrikapena 2008tik datorrela adierazi

du zuzendaritza batzordeko kideak, «herritarrei helarazteko feminismitik egiten den lana, Irun feministago bat eraikitzeke». Ondoren, 2011n, lehen parte hartze prozesua gauzatu zen Emakumearen Etxearen proiektua egikaritzeko, eta azkenean, 2019ko azaroan, egungo etxea denaren lehen harria jarri zuten, urte hartan abiatu baitzuten prozesu parte hartzailea.

Prozesu horrek bi urrats izan zituela nabarmendu du Ros Campok, pandemia garaikoa eta ondorengoa: «Pandemia garaian aurrez aurrekoa behar zuen prozesu bat, online egin behar izan genuen. Topaketa horiek gabeziak izan zituzten, ez baitzuten emakumeen arteko sarea osatzea bermatzen, hotzak ziren. Emakume asko, gainera, ez ziren teknologekin moldatzen, eta diskriminatuak geratu ziren. Lehen prozesu hartatik ideiak erreskatatu genituen, baina aurrez aurre aritzeko beharra ikusi genuen. Bigarren prozesua zortzi saio presentzialek osatu zuten, hilean behin elkartzen ginen».

Prozesu parte hartzailean, gainera, etxearen helburuak ezarri zituztela zehaztu du Olga Rivasek. Honakoak dira: «Emakumeen ahalduntzea, indarkeria matxistari aurre egitea, mugimendu asoziatiboa bultzatzea, espazio seguru bat sortzea, edota emakumeentzako eremu bat bermatzea». Gunea edukita eta irizpideak osatuta, Emakumeen Etxeak «mugimendu feminista ikusaraztea eta eremu fisiko bat izatea» ahalbidetuko dutela adierazi du Aintzane Ugaldek.

Emakumeen elkartearen kudeaketa

Emakumeen Etxearen eguneroko jarduna emakumeen elkarte batek kudeatuko duela jakinarazi dute zuzendaritza batzordeko kideek. Estatutuak, helburuak

eta irizpideak prest dituztela adierazi dute, eta zuzendaritza batzordea ere egin dago. Orain, elkarte legalki osatua dagoela, lanean hasteko unea iritsi zaie euren jarduna ikusgarri egiteko. Ugaldek aitortu du «mugimendu feminista motibazio handiarekin» dagoela. «2018an mugimendu feministak indar handia hartu zuen, baina pandemiak dena paralizatu zuen. Oraingo emakumeak motibatuta ikusten ditut borroka feminista hori berreskuratzeko», esan du Ugaldek. «Ilusio handiko proiektua dugu eskurategian. Espero dugu ondo ateratzea», gaineratu du Rivasek.

Lau emakumeek baietsi dute momentu honetan Irungo Udalarekin harremanetan daudela «hitzarmen bat negoziatzeko». Etxearen eguneroko jarduna emakumeen elkarteak kudeatuko badu ere, «kogestio» bat dagoela zehaztu dute, udalaren eta emakume elkartearen artekoa. «Hitzarmen horrek Emakumeen Etxearen lerro nagusiak markatuko ditu. Udalaren eta elkartearen ordezkaritza negoziatzen ari dira, puzzlea osatzeko. Guk argi dugu Irungo egunerokoa eragin nahi dugula», gaineratu dute zuzendaritzako kideek.

Handitzeko nahia

Emakumeen Etxeak bere jarduna orain aktibatuko badu ere, dagoeneko 70 bazkide direla esan dute lau emakumeek. Talde eta esparru ezberdinetako emakumeak lanerako bildu direla nabarmendu, eta bide onetik doazela iragarri du Ugaldek: «Sentsazioa dut ematen ari garen urratsak, motzak izan arren, sendoak direla. Uste dut mugimenduan errotuko direla. Garrantzitsua da pausoak ematea eta denboran mantentzea».

70 emakume elkartu badira ere, taldea handitzeko nahia eta beharra dute Irun-

go emakumeek, emakumeen «topaketa gune bat» eraikitzea baita haien helburua: «Jende berria eta batez ere gaztea erakarri nahi dugu, etorkizunera begira ari baikara lanean. Kolektibo zaugarrietara ere iritsi nahi dugu, haiek ere espazio honekin goza dezaten. Eta, guk, argi dugu: Emakumearen Etxeko ateak beti zabalik egongo dira beharra duenarentzako. Hemen mugimendua egotea nahi dugu».

Epizentroa, Istillaga plazan

Emakumeen Etxeak Istillaga plazan egingo du bidea, hiriaren erdialdean. Lokalak 280 metro koadro ditu, eta hainbat gune dituela aurreratu dute lau emakumeek. Espazioa handia izan ez arren, «aukera asko» ematen dizkiela onartu dute: «Dugun espazioa ez da oso handia, baina aukera asko ematen dizkigu. Plaza handi bat dugu aurrean eta lekua oso ona da, zentroan gaude, irisgarria da. Ekintzak antola ditzakegu lokaletik kanpo, bertatik joan gabe».

Emakumeen Etxeak balioaniztun gune bat izango du, eta beste espazio batean udaleko teknikariak izango dira arreta emateko.

Gune horretan gauzatuko dituzten jardueri dagokionez, ideia ugari dituztela aitortu dute lau emakumeek, betiere «emakumeen autozainketa eta ahalduntzea» sustatuko dutenak. Ekintza horiek zuzendaritza batzordearen barruan dagoen talde batek kudeatuko dituela azaldu dute, eta jardura soziokulturalak, formakuntza saioak edota ikastaroak bideratuko dituztela aurreratu dute.

Irungo Emakumeen Etxea errealitate bat da jada, eta lanerako prest daude bertan bilduko diren emakumeak. Orain, erabiltzea besterik ez da falta. ✕



Kalean egoteko eguna izango da Martxoaren 8a

Oarsoaldeko lau herrietan, nahiz Irunen eta Hondarrribian Emakumeen Egunerako hainbat mobilizazio antolatu dituzte. Egunari lotutako ekitaldiak dozenaka kontu daitezke herri guztietan.



laz Lezon goizez egin zuten manifestazioa. Aurten arratsaldean da. Urko Etxebeste

ies

pio

baroja

bhi

IES PIO BAROJA BHI

BATXILERGO ESKAINTZA ZABALA
EGUNEKO ZEIN GAUEKO IKASKETAK
D, B eta A EREDUAK



PIO BAROJA



la coquino

La coquino deco *Decorazioa eta opari bereziak*

Foruen plaza 20, Errenteria • 943 905 774 • 610325416



ratel gure denda berria ezagutzera!



EROSKI city

Pasai Donibane

Lezo Bide Kalea, 10 - Tel.: 943 34 60 07 - PASAI DONIBANE

Astelehenetik larunbatara
8:30etik 20:30era.

Bertako ekoizleekin konpromisoa

Gora emakumeen borroka!

URKO ETXEBESTE PETRIRENA

Martxoaren 8a, Emakumeen Eguna. Azken urteetako mobilizazioak egingo dituzte berriz ere Oarsoaldeko lau herrietan, nahiz Hondarrribian eta Irunen. Horien osagarri dozenaka dira aurreko eta ondorengo egunetan herriz herri antolatu direnak: astekari honen erredakzioa ixterako garaian [asteazkenean] dendenen berri ez zuen hedabide honek.

HITZA-k Martxoaren 8rako jaso dituen mobilizazio eta ekitaldi nagusiak honakoak dira: Errenteria-Oreteran, 19:00etan manifestazioa Zumarditik hasita; Oiartzunen, 18:00etan manifestazioa plazatik hasita, eta ondoren ekitaldia; Lezon, 19:00etan manifestazioa plazatik abiatuta; Antxon, 19:30ean manifestazioa Axular plazatik hasita; Irunen, 19:00etan San Juan plazan Itaiak deitutako mobilizazioa; Hondarribitik Irunera abiatuko da 17:30ean Bidasoko manifestazio orokorra, Martxoak 8 plazatik. ✕

Martxoaren 8aren gaineko ekitaldi guztiak hemen:
bidaso.hitza.eus
oarsoaldea.hitza.eus

Jendarte feminista eraikitzen jarraitzeko hizki moreak

Datorren astean jakinaraziko dituzte Asun Casasola Ipuin Lehiaketaren eta Mariasun Landa Sarien irabazleak. Zortzi eta hamahiru urteko bidea beteko dute, hurrenez hurren, aurten.

IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Ezinbesteko hitzordu bilakatu dira Mariasun Landa Saria eta Asun Casasola Ipuin Lehiaketa Martxoaren 8aren tes-tuinguruan. Biak ala biak, aldarrikatzaile, biak ala biak beharrezko. Errenteriako Berdintasun Kontseiluak sustatzen duenak bertako emakumeek udalerrinari egindako ekarpena erdigunean jartzea du helburu izen abizenekin; Parean elkar-teak antolatzen duena, berriz, indar-

keria matxistarik gabeko jendarte iru-dikatzeko bokazioz abiatu zuten. Hamahiru eta zortzi urtez, hurrenez hurren, beteko dute euren helburua, leial. Hilaren 9an jakinaraziko ditu aurtengo irabazleak Parean elkar-teak, 19:30ean Kabigorriin egingo duen sari banaketan. Mariasun Landa Sarien banaketa, berriz, hilaren 11n izango da, 12:00etan, Emakumeen Etxean. Irabazlea orduan jakinaraziko dute, baina dagoeneko ezaguna da Saioa Aizpurua Arribaren ekarpen esker-ga izan duela hizpide. X



Asun Casasola Pardo lehiaketaren laugarren aldiko sari banaketan. I. Zarate

ERRENTERIAKO IKASTETXE PUBLIKOAK
EGUNERO ETORKIZUN PAREKIDE BATEN ALDE LANEAN !!

Cristobal Gamon HUI
 943-99 91 38

Bizarain ikastola
 943-34 16 45

KOLDO MITXELENA
 Herri ikastetxea
 943-89 91 87



HERRI OLINPIADAK BUELTAN DIRA

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN HONDARRIBIA

Hondarribia herri olinpiaden aroan sartuta dago bete-betean. Pasa den larunbat goizean piztu zuten zuzi olinpikoa, eta ekainera arte iraungo dute. 26 taldeen aurkezpena egin ondoren, arratsalderako zita jarri zuten: herri kiroletan aritu ziren hondartzan. Estreinako egunean ederki pasa ondoren, beste lau data izango dituzte aurrerantzean, hilean behin. Martxoari dagokiona hilaren 19an egingo dute, igandearekin, eta altxorren bila arituko dira herri osoan zehar.

Amalur Saria, Arantxa Zapirain Oiartzabali

OIARTZUN. Labore Oarsok iaz eman zuen lehenengo aldiz Amalur Saria. Maixabel Arretxe Sarasola izan zen lehen omendua, eta aurten Arantxa Zapirain Oiartzabal oiartzuarrak hartuko du bere lekukoa. Labore Oarsok azaldu duenez, Zapirainek «bizitza osoa» eman dio baratzeari, eta Elikako «zutarrietako» bat da. «Eskertu eta omendu nahi dugu, zailtasunak zailtasun, gertuko ekonomian sinetsi ez ezik, inurria bezala, bere bizitza osoa baratzean lanean eman duen Arantxa Zapirain Oiartzabal», esan dute.

Ekitaldia bihar eguerdian izango da, Oiartzungo pleno aretoan. 12:00etan hasiko da, eta sarrera libre izango dela jakinarazi du Labore Oarsok. Kontsumo kooperatibako Konplize Taldeak iaz sortu zuen sari hori, elikadura burujabetzaren arloan lanean aritzen diren emakumeak aitortzeko.



LABORE OARSO

Sari banaketarena ez da biharko ekitaldirako programatu duten jarduera bakarria izango. Izan ere, Amets Ladislao Etxaldeko Emakumeak sindikatuko kidea gonbidatu dute, hitzaldia eman dezana. Agroekofeminismoa izango du hizpide Busturialdean (Bizkaia) lan eta bizi den nekazariak.

Ekitaldia Oiartzungo Feministen Asanbladarekin batera antolatu dute, eta Martxoaren 8ko egitarauaren barruan dago.

Hitzarmena, bide seguruagoak izateko

LEZO. Don Bosco Lanbide Heziketako Institutuko zuzendari Juan Carlos Lizarebek, Berrikuntza Zuzendari Jose Luis Perezek, eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarrirako Prestakuntzako irakasle zein ikasleek Lezoko Udaleko ordezkarien bisita jaso zuten asteartean ikastetxean bertan. Jesus Mari Martiarena alkatea, Joxean Sanchez Ingurumen zinegotzia, Leire Beteta Ingurumen teknikaria, Igor Ugarte Udaltzaingoko burua eta Arkaitz Angiozar Kirol teknikaria bertaratu ziren mugikortasuna, ekologia eta hezkuntzaren gaineko gaiak jorratzeko.

Zorigaitzoko gertaera batek lotu ditu estuago Lezoko Udala eta Don Bosco Lanbide Heziketa zentroa. Izan ere, pasa den urtarrilaren 5ean auto batek emakume gazte bat harrapatu zuen Gi-636 errepidean, Gaintzurizketan. Hil egin zen emakumea, jasandako zauriengatik handik egun gutxira. Istripua Lezon izan zen, eta lezoarra zen hildako emakume gaztea, baita Don Boscoko ikaslea ere.

Gertaeraren harira, halakoak errepika ez daitezen, Mugikortasun Seguru eta Iraunkorrerako Prestakuntza Berritzailan ari diren irakasle eta ikasleak bete-betean ari dira Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu nahi dioten proiektu batean lanean. Helburua: mugikortasun seguruagoa eta ekologikoagoa lortzea.

Udal ordezkariak ere jaso zituzten atzoko bisitan ikasle horien proposamenak, lehen eskutik. Jesus Maria Martiarena alkateak berak azaldu duenez, lan-kidetza hitzarmena sinatuko du udalak zentroarekin: «Hitzarmena sinatuko dugu, Mugikortasun Seguru eta Jasangarrirako graduiko ikasleek udalean praktika egin ditzaten, Lezon onartutako Mugikortasun Planean jasotako ekintza batzuk martxan jartzen lagunduz».

Joxean Sanchez Ingurumen zinegotziak zehaztaperen gehiago eman ditu: «Ziur gaude elkarlanean arituko garela planean jasotako ekintza batzuk gauzatzeko, hala nola, herritarrak mugikortasun gaietan sentsibilizatu eta informatzeko, edota eskola bide seguruak egiteko».

HemenGuken azokak udaberria ekarriko du

OIARTZUN. Bihar goizean egingo dute HemenGuk udaberriko azoka. Oraindik ere negua bukatzeko egun batzuk faltako badira ere, urtaro berria ez da urrun, eta herriko ekoizleek larunbata baliatuko dute euren uzta berriena azaldu, eta saltzeko. Modu horretan, udaberria aurretik eratuko da Oiartzunen.

Ohi bezala, Kontzejupean jarriko dituzte postuak ekoizleek. Ordutegia ere betikoa izango da: 10:00etan irekiko dituzte postuak, eta 13:30era arte izango dira bertan. Kasu honetan, hamalau izango dira beraien produktuak herritarrei eskainiko dizkietenak (albistearen bukaeran irakur daiteke zerrenda).

Udalak antolatzen du azoka. Herriko produktoreek egiten dutena erakutsi, eta salmenta zuzena bultzatzea dute asmo jarduerarekin: salerosketa gunea baino gehiago da, ekoizleen eta herritarren arteko harremana sortzeko eta sendotzeko baliagarri baitira urtaroko merkatu horiek. 2021ean egin zen lehena, eta ordutik arrakastaren bidea jarraitu duela adierazi du udalak.

Honakoak izango dira ekoizleak: Aaron larrugintza; Aldako txakolina; Arraztalo elkarte; Artexaniak artisautza; Erika kooperatiba; Gezamina elkar-tea, ogia eta sagardoa; Kosta itsas egurrak; LeiLei makramea; Lekungarai gaztagintza; Ogiaren Maitaleak elkarte; Oliparok artisau lanak; Papurrak ogia eta goxoak; Peluzahar arrautza ekologikoak; eta Zituene pasta.



Adin txikikoen kontrako indarkeriaren aurka

ERRETERIA-ORERETA. Touring Kirol Elkartek protokolo bat sortu berri du. «Adin txikikoen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko eta jazarpen eta abusu sexuala prebenitzeko asmoz sortu dugu protokolo berri hori», jakinarazi du Erreteria-Oreretako futbol klubak.

Kiroldegietako langileak, greban

IRUN. Irungo kiroldegietako langileak greban daude atzotik, eta etzira arte luzatuko dute lehen borrokaldi aroa. BPXport enpresak kudeatzen ditu kiroldegiak. Otsailaren 22an egin zuten aurreneko bileran enpresak langileen proposamen guztiak atzera bota zituen. Aste honetan izan den bigarren bileran, berriz, enpresak bereak jarri zituen mahaiaren gainean, ELA sindikatuak jakinarazi duenez. Honakoak ziren baldintza berriak: 2023rako soldataren %0,5eko igoera, eta

Realak kirolean haur eta nerabeak babesteko eta sexu jazarpena eta abusuak prebenitzeko gidatutako Joko Ok izeneko programa honetan aritu da lanean kluba azkenaldian.

Martxan jarri berri duten protokolo horren bidez «hausnarketa, sentsibilizazioa eta prestakuntza lan bat» egin nahi dute «klubeko eta inguruko artean heziketa bultzatzeko». «Hezkuntza da jokabide desegokiak prebenitzeko giltza», adierazi dute klubeko iturriek.

Modu horretan, klub gorritxoko kide guztiak posta elektronikoko bat eta telefono zenbaki bat izango dute eskuragarri aipatutako egoeraren bat ematen bada. Norbaitek jazarpen edo abusu horiek pairatu dituela jakinez gero, edo jokabideren baten inguruan zalantzak izanez gero, klubak izendatutako babeserako ordezkariarekin harremanetan jarri ahalko dira biktimak.

2024rako beste %0,5eko igoera. Langileak ez daude ados horrekin.

Sindikatuaren iritziz, «langileen soldatak beste bi urtez izoztuta uzteko» proposamena da BPXport enpresarena. Gainera, enpresak negoziaketa «greba bertan behera utziko» balitz hasiko lukeela adierazi du sindikatuak. Baina, hartara ere, bi urtera begirako baldintzak aldatzea lortuko lukete soilik, eta langileen arteko ezinegona ezkutatuko litzatekeela ere deitoratu du sindikatuak.

Langileak greba egin aurretik hasi ziren mobilizatzen. Asteartean Artalekun izan ziren zarata ateratzen.

BISITA EZAZU MARTXOAREN 8KO ATAL BEREZIA

Albisteak, elkarrizketak eta erreportajeak. Herrietako argazki galeriak. Oarso Bidasoko HITZAren astekari berezia.

OARSO BIDASOKO
HITZA



bidasoa.hitza.eus



oarsoaldea.hitza.eus



OARSO BIDASOA

Pasaitarrak, Mugiment txartelaren barruan

PASAIA. Pasaiako Udalak onartu du Mugiment Kirol Txartela egitasmoari atxikitzea. Akordioari esker, Trintxerpe eta Donibaneko udal kiroldegietan abonatutako bizilagunek aukera izango dute Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko beste 143 instalazio gehiago ordaindu gabe erabiltzeko, arduradun bakoitzak zehazturiko baldintzetan, betiere.

Txartel birtualla *KirolTxartela Mugiment app*-aren bidez aktibatu beharko dute erabiltzaileek. Arduradunek azaldu dutenaren arabera, erregistroa egiten dutenek jakinarazpen bat jasoko dute euren mugikorretan, eta ordutik aurrera erabilgarri izango dute bonua. Askiz izango da harreraren txartel digitala eta NA erakustearekin.

Etxetxok auzolanera deitu du, biharko

LEZO. Etxetxo Lezoko Memoria Historikoaren Taldeak auzolanekin aurrera jarraitzen du. Iparragirre eremuko barrakoiak eta ingurua garbitzeko aukera berria biharko prestatu du. «Lezoko memoria historikoa ezin da galdu», esan dute elkarteko kideek.

09:30ean elkartuko dira, Tiñelun. Ondoren, Iparragirre aldera joango dira helburutzat duten zereginean aritzera. «Barrakoiak garbitzen jarraituko dugu. Horretarako zure laguntza behar dugu», adierazi dute.

AIAk mural berria aurkeztu du

OIARTZUN. Aska Itzank Animaliyak (AIA) taldeak murala enkargatu zion Alaia Gaztelumendi Alaiart artista oiartzuarrari, eta jada egin du bidegorri ondoko eraikinean, Atamitx zenaren inguruan. Lide Trekuk jakinarazi duenez, AIAk «Oiartzunen presentzia» izan nahi du, eta «herriaren ehunetan» sartzen saiatu dira. Lanean daramaten denboran, «bide ezberdinetako» aldarrikapenak jorratu dituztela nabarmendu du. Oraingoan zerbait margotzeko asmoarekin zeuden, zerbait artistikoa egiteko gogoz, eta Gaztelumendiri proposamena luzatu zioten, murala margo zezan. «Herrian presentzia fisiko bat izatea ere bilatzen genuen muralarekin», jakinarazi du Trekuk. «Gure aldarria da tradizioak man-



Mikel Del Val

tentzea kalterik sortu gabe. Kultura aldatzen eta eraldatzen den gauza bat da, momentura egokitu behar da».

Alaiartek azulejoa erabili du animaliak festetan ez erabiltzea aldarrikatzeko. Jende asko pasatzen den toki batean egin nahi zuten murala, eta, gainera, ondoko baratzeako animaliak aske ibiltzen direla nabarmendu dute.

Lisboa, Bidasoa-Irunen hurrengo geltokia

IRUN. Bidasoa-Irunek bukatu du EHF Europa Ligako multzoen fasea. Pasa den asteartean, Artalekun jokaturako partidari, 29-26 nagusitu ziren Skanderborg-Aarhus Danimarkako taldearen kontra. Irundarrek sendo hasi zuten partida, eta 16-12 iritsi ziren atsedendira. Bigarren zatian gauzak pixka bat zaildu ziren, baina azkenean garaipena etxean geratu zen. Lisboako Sportingek kontra hartuko dira final zortzirenetan. Joaneko partida hilaren 21ean izango da. Etzi, baina, Bartzelonaren bisita jasoko dute.

Kontzertu lirikoa, gaur Fatimako parrokian

ERRETERIA-ORERETA. Batura Zikloaren barruan kontzertua izango da gaur arratsaldean Fatimako elizan. Maider Ronquete sopranoak, Franco Cavalleri pianistak eta Noelia Ibañez mezzosopranoak emango dute kontzertua, 19:30ean hasita. Kontzerturako hautatu duten erreperitorioa Batura Zikloaren helburuekin bat dator, eta Euskal Herriko kantuez gain, nazioartekoak ere bilduko ditu. Sarrerek 15 euroko prezioa izango dute. Horiek erosteko informazioa aurki daiteke oarsoaldea.hitza.eus-en.

LEZO

AGENDA

Kulturala

ANTZERKIA

3

AGORTUTA

MUNDUARI ITZULIA
80 EGUNETAN

Glu Glu konpainia.
SARRERA 3 €. Euskaraz

5

LAS QUE LIMPIAN

A Panadaria eta Zentro Dramtikoa
Nazionalaren arteko koprodukzioa.
SARRERA 8 €. Gaztelaz


BADATOR

LANDETXE


LANDETXEREN IREKIERA
MARTXOAK 10, 11, 12 ETA 14



HITZ GEZIDUNAK

	Egokiera, abagunea	▼	Erabateko	▼	Ibaiko igarobide	▼	Era eman	▼	Izurritea	▼	
	◆ Izena		Pilota jokalaria				Produkzioak		Kanpo, landa		
		▶		▼	Hortaz	▶	▼		▼		
					Zapatagina						
	Zirikatu	▶			▼						
	Ontzia gidatzekoa										
Pl., Espainia-ko errepeidea	▼	Errepika	▶	▼			Ogi, hitz elkarketan	▶		Kontso- nantea	▶
Pantaloi, kulot		◆ Deitura					Urania			Mapa bilduma	
▶		▼			Puiuko herritar	▶	▼			▼	
					Hedabide mota						
Setatia, egoskorra	▶				▼		Azkeneko letra	▶	Titanioa	▶	
Korda							... egin, enpo egin		Idi, hitz elkarketan		
▶					Arto irinez-ko opila	▶	▼		▼		
					Urtaro beroa						
Bukaeraren hasiera	▶		Urratzea	▶	▼						Oinarrizko edaria
Ziordiako herritar			Edari bizi								
▶		▼					Nitrogenoa	▶	Sute	▶	▼
							Runetioa		Sodioa		
Zakotea	▶				Tiranako herritar	▶	▼		▼		
Izan, eduki					1000						
▶					Miau eginez	▶	▼			Lehenengo letra	▶

Lehiaketan parte hartzeko, bidali hitz gezidunak osaturik 688 77 07 52 zenbakira whatsapp bidez (argazkia atxikituz), denborapasakobh @hitza.eus helbidera (gaian 'denbora-pasak zozketa' jarrira) edo OARSO BIDASOKO HITZAKO bulegora (Irun kalea 8, Errenteria-Orereta) eramanda. Epe muga: datorren asteazkeneko 12:00ak arte jasotako orrialdeak izango dira onartuak.



GOITIBEHERA

Goiti eta beheiti letra bat gutxiago edo gehiago du asmatu beharreko hitzak.

- [1] Meategiko langile.
- [2] Gauza guztiak eginak dauden gaia.
- [3] Elizatxoa, baseliza.
- [4] Pasaiko ontzi museo ekoaktiboa.
- [5] Xake-..., amaitu da partida.
- [6] Sarrera nahiz irteera.
- [7] Irtzi bati, amore eman gabe eusten dionaren jarrera.
- [8] Zazpi eguneko denbora bitartea.
- [9] Arerioa.
- [10] Kanta, kantua.
- [11] Notizia, berria.

OTSAILAK 24ko ASTEKARIKO DENBORAPASEN ERANTZUNAK

3	7	5	2	9	4	6	1	8
9	4	1	7	8	6	5	3	2
2	8	6	3	1	5	7	4	9
8	6	2	4	5	1	3	9	7
4	5	9	8	3	7	1	2	6
1	3	7	9	6	2	4	8	5
6	2	8	1	7	3	9	5	4
5	1	4	6	2	9	8	7	3
7	9	3	5	4	8	2	6	1

SUDOKU



HITZ GEZIDUNAK



DENBORA-PASAK

ASTEKO SARIA IDOIA BERATARBIDEREN LAMINA

Egileak sinatua eta zenbakitua. 42x30cm-ko tamaina, 250gr-tako Tintoretto Gesso paperean inprimatua.



AURREKO ASTEKO SARIDUNA ANA BURGOS VIÑARAS

MAHALAREN PRODUKTUEN SASKIA
Mahala Baserria - LEABURU. www.mahala.eus

LANDARBASO TRAILERAKO DORTSALA AINGERU PALOMO ZABALA

HILABETEKO ZOZKETAK

61

BANAKA CERAMICS

Kattalin Aguedaren
zeramikazko bi bol

(Telefonoz parte
hartzeko eskaintza
zenbakia: 61)



@banakaceramics
banakaceramics.com

62

EMAKUME BAT

Annie Ernauxen
(Nobel saria 2022)
liburua

(Telefonoz parte
hartzeko eskaintza
zenbakia: 62)



Txalaparta argitaletxea
www.txalaparta.eus

63

LURRAZ BESTE

Garazi Arrularen
liburua

(Telefonoz parte
hartzeko eskaintza
zenbakia: 63)



Txalaparta argitaletxea
www.txalaparta.eus

64

LA PERLA

Bi lagunentzako Forman jartze-
ko Talaso Zirkuitua

(Telefonoz parte hartzeko
eskaintza zenbakia: 64)



Kontxako pasealekua z/g
DONOSTIA
943 45 88 56
www.la-perla.net

65

TXINDOKIKO ITZALA

Bi lagunentzako bina sarrera

(Telefonoz parte hartzeko
eskaintza zenbakia: 65)



ABALTZISKETA
601 90 86 69
943 654 757
www.txindokikoitzala.com/eu/

Zozketan parte hartzeko deitu: 943 09 06 08 telefonora edo sartu gure webguneetako HITZAKIDE TXOKOA atalean, martxoaren 27a baino lehen. Saridunen izenak martxoaren 31n argitaratuko ditugu.

Zozketetan parte hartzeko egin zaitez HITZAKIDE.....

Nola? 943 34 03 30 zenbakira deituaz edo sartu oarsoaldea.hitza.eus/hitzakide/izan edo bidasoa.hitza.eus/hitzakide/izan helbideetan.

2MÓ 99€

ERREFLEXUEN
AURKAKO
GRADUATUAK



DONOSTIA

Jose M^a Sert 4 - ANTIGUO • Tel.: 943 14 28 17
C/ Nueva 15 - GROS • Tel.: 943 32 66 49

ERRETERIA

Koldo Mitxelena 7 • Tel.: 943 51 78 11

IRUN

Mendibil M.G. • Tel.: 943 63 99 01

www.multioplicas.com   

MULTIÓPTICAS
kalitatea - konfiantza - diseinua